

Amazon Prime Videok '3 Caminos' telesaila estreinatuko du bihar. Bost lagun Donejakue bidean elkartuko dira hiru alditan, eta haien bizitzetako garabeherak tartekatuko dira.

Donejakue bide sentimentala

Urtzi Urkizu

Bi emakume eta hiru gizon aurrera begira, Leireko monasterioari (Nafarroa) eta inguruko parajei begira, begiak itxi dituzte eta Donejakue bideak elkar-tu dituen sentimenduan egin dute bat. *3 Caminos* telesailaren eszenetako bat da, baina ez da Nafarroan grabatutako bakarria. Donejakue bidea zeharkatzean, bertako makina bat toki ezagutuko ditu ikus-entzuleak. Amazon Prime Video plataformak bihar estreinatuko du zortzi ataleko telesaila munduko 200 herrialdetan.

Olga Salvador, Mamen Quintas eta Mauricio Romero izan ziren telesaila egiteko ideia izan zutenak. Alberto Macias gidoilaria geroago batu zen proiektura, Alemaniako Beta Films ekoiztetxearen bitartez. «Hasierako planteamendua trabatuta zegoen, eta materialari forma eta sakontasuna emanez joan ginen. Tonua aurkitzea falta zen».

Bost pertsonaia protagonistak herrialde desberdinetakoak dira: Hego Korea, Alemania, Italia, Mexiko eta Espainia. Hiru garai desberdinetan, Donejakue bidean topatuko dira bost lagunak. «Pro-

posamen horri heldu eta hezur-mamituz joan ginen», azaldu du Macias. Gidoilariak nabarmendu du garrantzitsua izan zela 2019ko udaren amaieran lantaldeko zortzi lagun Donejakue bidea egitera joan izana. «Hori funtsezkoa izan zen. Tokiak ezagutu genituen, eta idazteko funtsezkoa izan zen». Bidaia horretan –furgonetan eta oinez– lantaldeko kideei gertatu zitzaizkien pasadizo batzuk telesailaren islatuta daude. «Modu desberdin batean ezagutu genuen elkar. Bidean, isiltasuneko une asko daude. Era berean, asko hitz egiten da, eta beste pertsonen gauza asko ezagutzen dira».

Izan ere, *3 Caminos* telesailaren istorioan oinarritzkoa da pertsonaia protagonistek euren burua ezagutzeko izaten duten prozesua. «Donejakue bidea hasiko dute pentsatzen gauza bat direla, dituzten arazo batzuei ez ikusia eginez, eta, bideak eta beste pertsonaiekin dituzten harremanei esker, begiak zabaltzen hasiko dira».

Tonuari dagokionez, zenbaitean komediara jo dute. Baina beste momentu askotan istorio dramatikoa dira pertsonaiei gertatzen zaizkienak. Sentimendu asko ageri dira istorioan.

Pertsonaiek Orreagan (Nafar-



3 Caminos telesailako bost protagonistak, fotograma batean. MANU SUAREZ / AMAZON PRIME VIDEO

roa) hasten dute bidea, lehen atalean. 2000. urtean dago giro-tuta elkar ezagutu eta lehen bidea Santiagoraino (Galizia) egiten duten zeharkaldia. Beste bi bideak 2006an eta 2021ean dira, eta argi ikusiko da guztiak bilakaera pertsonal sakona dutela. Denboraren joana, bikote harremanen gastea, ametsen heriotza eta zahartzaroari beldurra dira agertzen diren gai batzuk. Baita bakardade sentimentua, homosexualitatearen azalratzea eta beste zenbait gai existenzial ere.

Aktoreen ekarpena

Norberto Lopez Amador eta Iñaki Mercero –Antonio Mercero zinemagilearen semeak– zuzendu dute telesaila. Gidoilari taldean, Alberto Maciasekin batera, Carlos Molinero eta Juan Ramon Ruiz de Somavia aritu dira. Aktore protagonistak, berriz, Alex

Gonzalez, Veronica Echegui, Cecilia Suarez, Anna Schimrigk, Andrea Bosca eta Alberto Jo Lee dira. Maciasen arabera, aktoreek asko lagundu zuten prozesuan. «Veronica Echegui eta Alex Gonzalez oso metodikoak dira, eta gidoiaren azken bertsiotan ekarpenak egin zituzten. Guztiak lana intentsitate handiz hartu zuten».

Proiektuan herrialde desberdinetako ekoiztetxeek parte hartu dute. Halaber, Galiziako TVG kate publikoak, Portugalgo RTPk eta

Mexikoko Unoenlounok babestu dute. Nafarroako Gobernuak eta Galiziako Xuntak ere bai.

Xacobeo urtea da 2021a, eta, hori dela eta, bizkor ibili dira prozesuaren bukaeran. «Urte honen hasieran estreinatzea garrantzitsua zen ekoizleentzat eta babesleentzat», adierazi du Macias. Gidoilariaren iritziz, Donejakue bidea egin duten ikus-entzuleak ez dira harrituko telesailaren ikus-entzuleekin. «Donejakue bidea egitearen errealitateari oso atxikita dago. Bidenabar, telesailak bidea noizbait egitera animatu ditzake zenbait ikus-entzule».

Gidoilariak, berriz, nabarmendu du azkenaldian gero eta ko-produkzio gehiago daudela herrialdeen artean. «Telesail gehienek *glocal* ezaugarria dute: lokalak dira, baina nazioarteko proiektzioa izan behar dute. Kate guztietan gauza bera da».



Pertsonaiek Donejakue bidea hasiko dute arazo batzuei ez ikusia eginez, eta, bideari esker, begiak zabaltzen hasiko dira»

Alberto Macias

'3 Caminos' telesailako gidoilaria